


DBHrako
unitate didaktikoa



JOSE ANTONIO
AGIRRE



JOSE ANTONIO AGIRRE

**EUSKO JAURLARITZAKO
LEHENENGO LEHENDAKARIA**

bere jaiotzaren mendeurrenean

DBHrako unitate didaktikoa



Argitaraldia: 1.a, 2004ko abendua

Ale-kopurua: 6.000 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Carlos Puerta Sesma

Diseinua eta
maketazioa: Xabin Arzelus

Lege Gordailua: SS-1456/2004

AURKIBIDEA

1	SARRERA	5
2	BIOGRAFIA	6
	1920. URTEA	7
	1926. URTEA	10
	1931ko UDAL HAUTESKUNDEAK	11
	ESTATUTUAREN ALDEKO KANPAINA	12
	1934. URTEA	16
	1936. URTEA	18
	GERRA ZIBILA ETA EUSKO JAURLARITZA	19
	ERBESTEALDIKO BIZITZA	27
	DIASPORA	29
	I. EUSKAL MUNDU BILTZARRA	32
	JOSE ANTONIO AGIRREREN HERIOTZA	33
3	KRONOLOGIA	35
4	AUTOEBALUAZIORAKO ARIKETAK	37
5	BIBLIOGRAFIA ETA BALIABIDEAK	42





1

SARRERA



2004. urtean, Jose Antonio Agirre, Eusko Jaurlaritzako lehenengo Lehendakaria, jaio zeneko mendeurrena ospatzen da. Gizatiartasun handiko gizona, politikari handia eta europa zale peto-petoa. Hau izan da unitate didaktiko hau egiteko arrazoia. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei dago zuzenduta eta Jose Antonio Agirre bera, bere jarduera politikoa zein bizitza egokitu zitaion garai historiko garrantzitsu eta istilutsua jakinaraztea du xede.

Unitate didaktiko honekin, halaber, euskal ikasleek gure herriaren historia hurbilean sakondu eta horretan esku hartu duten protagonistek argi-iturri izan dituzten ezagutzak eta balioak atera ditzaten ere lortu nahi da. Honela, gure ikasleek gure bilakaera historikoa ezagutuz bizi ahal izango dute oraina. Ikasmaterial honek 2004-2006 hirurtekorako Hezkuntza Berrizitzeko Zuzendaritzak ezarritako lehentasunezko ildoen garapenean ekarpen bat egiten du (dimentsio sozio-kulturalak: euskal dimentsioa eta europar dimentsioa).

Unitate didaktikoa Agirre Lehendakariaren bizitzaren kronologiari jarraituz garatuta dago; bera protagonista izan deneko gertaera historikoak zein garai horretan Euskal Herrian, Espainian eta Europan gertatutakoak azaltzen dira.

Unitate didaktiko hau erraz tarteka daiteke Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Gizarte Zientzien, Geografia eta Historia arloetan, Euskal Herria eta Espainiako Historia Garaikideari buruzko gaiak barne hartzen baititu.

Segida kronologikoa proposatzen da metodologia-eredutzat. Honetan, J. A. Agirrearen bizitzaren une garrantzitsuenak eta aldi horretan zehar espazio-eremu ezberdinetan jazo ziren gertaera historikoak nabarmendu dira.

Jarduera-segida era guztietako ariketetan oinarrituta dago: prozedurazkoak, jarrerazkoak eta kontzeptuzkoak; lortu nahi diren helburu didaktikoen eta ikasle- en arabera aukeratu ahal izango ditu ariketak irakasle bakoitzak.

Jose Antonio Agirre, Eusko Jaurlaritzako lehen Lehendakaria izan zena, Bilbon jaio zen 1904ko martxoaren 6an, Zazpi Kaleen erdi-erdian, Gurutze kalean, hain zuzen, Juan Santuen Eliza ondoan, eta bertan bataitu zuten, Euskal Museoaren egungo egoitzatik metro gutxira.

Beraz, aurten bere jaiotzaren mendeurrena betetzen da.

Egun, Gurutze kalera joaten bagara, Jose Antonio Agirreren jaiotza eta heriotza gogorarazten dituen plaka bat aurkituko dugu.



Gurasoak gipuzkoarrak ziren: Teodoro Agirre, Bergararra eta Bernardina Lekube, Mutrikuarra.

Aita abokatua zen, eta familiaren txokolate enpresa Bilbora eraman zutenez, familia osoa bertara joan zen bizitzera eta ondoren, Algortara. Jose Antonio Agirre Teodoro eta Bernardinaren lehen semea da eta hamar anai-arreberen artean nagusia.




J. A. Agirre bere bederatzi anai-arrebetako bostekin.
 Abertzaletasunaren Agiritegia. Sabino Arana Kultur Elkargoa.



Lehen Hezkuntzako ikasketak, Plaza berrian zegoen Euskadiko lehen ikastolan egin zituen. Florentina Gogenuri izan zen bere lehenengo andereñoa.

Bigarren Hezkuntzako ikasketak Urduñako Jesuiten ikastetxean hasi zituen, eta amaitzean Deustuko Unibertsitatera joan zen Zuzenbide-ikasketak egitera.

J. A. Agirreren bizitzan zehar, Euskal Herrian, Espainian eta Europan oso gertakizun eta jazoera historiko garrantzitsuak gertatu ziren, esaterako: 1914. urtean, Lehen Mundu Gerra hasi zen, eta honek hein handiago edo txikiagoan Europako herrialde guztiak erasan zituen. Espainiak ez zuen gatazka honetan parte hartu, hau da, neutral azaldu zen, eta ondorioz herrialdeko ekonomiak gora egin zuen, espainiar industriak gerran murgilduta zeuden herrialdeak era guztietako materialez hornitu baitzituen.

 **Ariketa:** 1

Bila ezazu Lehen Mundu Gerrari (1914-1918) buruzko informazioa eta bete ondorengo koadroa:

Zerk eragin zuen	Parte hartu zuten lehiakideak	Gatazkaren ondorioak
Leherraraztearen arrazoiak:	Entente Hirukoitza osatzen zutenak:	Giza eta ekonomia-arlokoak ...
	Aliantza Hirukoitza osatzen zutenak:	Gizarte-arlokoak ...
		Politika-arlokoak ...

1920. URTEA

Kronologikoki, J. A. Agirreren bizitzako une guzti garrantzitsura heltzen gara. Urte honetan aita hil eta familia Algortara joan zen bizitzera. J. A. Agirre asko hunkitu zuen aitaren heriotzak, baina 10 anai-arreben artean nagusia izanik (une honetan 16 urte zituen), bere buruaz jabetu eta familia osoari bihotz eman zion. Honela, anai-arreba guztien egiazko aita bihurtu eta bizitzaren erronkei aurre egiteko gaitasuna erakutsi zuen. Ikusiko dugun bezala, honakoak dira J. A. Agirrek bizitza osoan zehar eta parean tokatu zitzaizkion egoera zailen aurrean praktikan jarri zituen dohainak.

Zuzenbideko ikasketak amaitzean, familiaren "Chocolates Aguirre" fabrikari hasi zen aholkulari-lanetan. Geroago, beste bazkide batzuekin elkarrekin sortu zuen, eta "Chocolates Bilbainos S.A." izena hartu zuen.

"Chocolates Bilbainos S.A." fabrika 1920. urtean sortu zen, honako lau txokolategileak elkartu zirenean: "Martina Zuricalday", "La Dulzura", "Caracas" eta "Chocolates Aguirre". Bakoitzak negozioaren % 25eko partaide-kuotaren jabe egin zen.

J. A. Agirre, adin-nagusitasunera heltzean, Kontseilari izendatu zuten, eta anaia Juan Mari, lau urte beranduago.




Familiaren enpresaren ikuspegi orokorra, Bilboko Tiboli zeharbidean zegoen kokatuta eta "Chobil" txokolateen bilgarriak. "Pro libertate patria" Erakusketa. Abertzaletasunaren Museoa. Sabino Arana Kultur Elkargoa.

Negozioaren funtzionamenduaz arduratu zen uneoro Agirre, eta beranduago, 1933.ean, horren erreforma teknikoan esku hartu zuen eraginkortasunez.

"Chocolates Bilbaínos S.A." enpresako aholkulari moduan, Agirre, Leon XIII.aren Rerum Novarum entziklikan jasotzen den Elizaren doktrina sozialari (langileen eta nagusien arteko adostasuna bultzatzen zuena) jarraiki, langileen aldeko erreformak egin zituen. Adibidez: doako asistentzia medikoa enpresan, opor ordainduak, etxebizitza sozialen sustapena, enpresa-etekin zati bat behar tsuenen artean banatzea, etab. J. A. Agirrek eta Juan Mari anaiak (enpresaren zuzendaria), fabrikako langileen komitearekin adostutako Arautegi bat ere ezarri zuten. Delako hori aparteko aurrerapausu sozialtzat hartu zen beranduago, eta Administrazio Kontseiluak aho batez onartu zuen. Hitz batez, Agirrek enpresa kudeatzeko eredu berri bat eratu zuen eta, garai hartako enpresek erabili ohi zituztenak oso bestelakoak baziren ere, bere ideiekiko zeharo koherentea zen.

1937. urtera arte, "Chocolates Bilbainos S.A." enpresak, Estatu espainoleko sektoreko fabrika garrantzitsuenen artean, bigarren lekua hartu zuen.



Ariketa:

2

Irakurri arretaz Leon XIII.ak, 1891ko maiatzaren 15ean Erroman, emandako Rerum Novarum entziklikako ondorengo zatiak eta adierazi zeintzuk diren J. A. Agirrek eta anaiak "Chocolates Bilbaínos S.A." enpresan erabilitakoekin bat datozen puntuak.

RERUM NOVARUM

"Entziklika honetan aditzera ematen du gure eginkizun apostolikoaren kontzientziak kargu hartu behar duela, eta jor-nalarien eta nagusien arteko gatazkari irtenbidea eman behar zaiola, gatazka horrek egia eta justizia eskatzen baitu, beharrezkoa delako beheengo mailako gizakiei azkar eta egokitasunez laguntzea; izan ere, gehienak zorigaitzoko eta merezi gabeko egoeran baitaude."





SOZIALISTEK PROPOSATUTAKO IRTENBIDEA

Gaitz hau konpontzeko, Sozialistek, txiroengan aberatsenganako gorrotoa piztu eta gero, jabetza pribatua deuseztatu beharra aldarrikatzen dute, eta horretarako ondasun partikularrak hartu eta heritar guztien artean banatu behar direla.

Baina, proposamen honek arazoa konpondu beharrean, langileen kontra egiten du eta, gainera, gizarte-ordena nahas dezake. (...)

I. BERE DOKTRINAREN ONDORIOZ

Lehen printzipioa, eta guztiaren oinarri, giza egoerara egokitzean datza, gizarte zibilean ez direlako denak berdinak eta ez direlako aberastasun berberen jabe.

Gizakiari sufritzea eta pairatzea dagokio, eta ez du ezin indarrek atsekabe horietatik erabat aterako. Neke eta minik gabeko bizitza agintzen dutenek, herria oker jokatzera eramaten dute, eta iruzur eginez engainatzen dituzte, eta azken hauek oraingoak baino gaitz handiagoak ekarriko dituzte.

Dagokigun gai honetan gaitz nagusi bat dago: gizarteko klase batzuk, berez, besteen etsai direla uste izatea. Baina hau arrazoiren kontrakoa da, oreka lortzeko bata bestearekin moldatu behar baita, lanik gabe ezin delako kapitalik egon, ezta kapitalik gabe lanik ere.

Kristau erlijioak egundoko indarra du borroka honekin amaitzeko, elizaren eginkizunetako bat baita dirudunei eta proletarioei elkarrekin konpontzen eta elkarrengana hurbiltzen laguntzea, eta alde biei erakusten dizkie elkarrenganako betebeharrak langileei, alegia, askatasunez eta zuzentasunez kontratatutako lana osorik eta leialtasunez bete, kapitalari inolako kalterik ez sortu eta beren eskubideak defendatzean, indarra alde batera utzi behar dutela.

Gizakiak esklabotzat ez hartzeak eta beraien duintasuna, noblezia eta kristautasuna defendatzea dira aberats eta nagusien betebeharrak.

Gizakiarentzat ez da lotsagarria soldata baten truke lan egitea, bizitzari zintotasunez aurre egiteko bidea ematen baitio, benetan lotsagarri eta gizalegerik gabeta zera baita: gizakia probetxua ateratzeko baino balio ez duen zerbait baillitza erabiltzea. Horregatik, nagusiek ez diote bere indarrek jasan ahal dutena baino lan gehiago eman behar; aldiz, nagusien funtsezko betebeharren arteko bat da bakoitzari legebidez dagokiona ematea.

Nagusiek gogoan izan behar dute, soldata erabakitzerakoan, etekin handiagoak ateratzeagatik pobreak esplotatzea jainkoaren eta gizakien eskubide guztien aurka dagoela.

Gatazkari amaiera emateko ez da nahikoa izango lege hauek betetzea, baina elizak, horren bidez, adiskidantza estuan elkartu nahi ditu klase bata eta bestea (...)

Agirrek Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide-ikasketak egiten jarraitu zuen eta interes handia izan zuen batik bat Historiaren inguruko gaietara; kirolak ere oso gustuko zituen: pilota, igeriketa eta batez ere futbola. Futbolearen, Unibertsitateko lehenengo taldean jokatu zuen eta ondoren, 1923-24 denboraldian, Bilboko Athletic taldean. Denboraldi horretako Espainiako txapelketa irabazi zuen.



Agirre, zirkulu baten barruan, ezkerretik hasita bosgarrena. Abertzaletasunaren Agiritegia. Sabino Arana Kultur Elkargoa.

Honela ikusi zuen Jose Maria Areilzak:

"Ez zen oso altua; gorputz atletikoa, kirolari-gorputza eta bizkar zabalekoa; euskaldunen sudur eta soslai tipikoak, Pepe Arrueren antzera; ile kizkur eta horiska; begirada lau eta zuzena. Athletic-en eskuineko barnealdean jokatzen zuenean, ziurtasunez aritzen zen, inolako apaingarririk gabe, atera ondo botatzen zuen, garbitasun zintzoaz. Abizen bereko hiru futbolari zeuden aurrealde hartan, eta zaleek ezizenez ezagutzen zituzten".

(E. Jiménez, 2000)

Lekuko kirol-kazetari batek honela deskribatu zuen hirukotea:

Tres ases tiene el Athletic
Que relumbran más que el sol
Agirre el del chocolate,
El que patina en Begoña
Y el que tira cada centro
Que cada Centro es un gol.

(E. Jiménez, 2000)

Futbolari izan ondoren, Athletic zale porrokatua izaten jarraitu zuen Agirrek. Gerra garaian, Euskadiko Selektzioaren aldeko sustatzaile nagusienetako bat izan zen Agirre Lehendakaria. Selektzioak Europan eta Amerikan jokatu zuen, eta partiduetan bildutako dirua Europan errefuxiatuta bizi ziren haurrentzat izan zen.

1926. URTEA

Zuzenbideko ikasketak amaitu eta Bilboko Garellano kuartelean soldadutza egin zuen 1926.ean. Garaiko gazte askok legez, soldadutza amaitutakoan lanari ekin zion. Hasiera batean, Esteban Bilbao abokatuaren bulegoan lan egin zuen abokatu-laguntzaile lanetan. Honekin hiru urtez lan egin zuen, baina berehala, bere kabuz lan egiteko grina sortu zitzaion, honela, interesatzen zitzaikion gaiak konpontzeko aukera zuelako. Azkenean, bulego propioa ireki zuen Iturribide kaleko 2. zenbakian Antonio Berreteaga lagunarekin batera. Agirre, lan-munduaren eta jarduera politikoen inguruko gaietaz interesatu zen. Ez dugu ahaztu behar herrialdea Miguel Primo de Rivera jeneralaren diktadurapean zegoela.



Bila ezazu Miguel Primo de Rivera jeneralari buruzko informazioa eta bete ezazu ondorengo koadroa. Bertan, 1923-1930 urteen bitartean Espainian ezarri zuen diktaduraren ezaugarri nagusiak azaldu behar dira.

**Estatu Kolpeari
bidea eman zioten
faktoreak**

Gizarte-babesak

**Parte-hartzaile
militarrak**

**Parte-hartzaile
zibilak**




11

Garai honetarako, orain arte aipatutako bizitza sozial eta politikoarekiko konpromisoa eta horretan parte-hartzeko joera barneratuak zituen J. A. Agirrek. Horrekiko koherente izanik eta Bizkaiko Gazte Katolikoak (kasu honetan ere lehendakari izan zen) gisako mugimendu eta elkarte ugarietan esku hartu ondoren, EAJko kide egin zen Jesus Maria Leizaola burukidearen eskutik.

EAJn sartu ostean, argi eta garbi ikusi zuen zein zen bere ideiak jarduera politikoarekin bateratzeko jarraitu behar zuen bidea.

Hasteko, EAJ zatituta aurkitu zuen, bi joera nagusitzen baitziren: Aberri eta Comuni3n; berak bigarrenari jarraitzen zion. Agirrek ez zuen jeltzaleen arteko zatiketa hau onartzen, berarentzat, edozein ezberdintasunaren gainetik euskal aberria eta herria baitzeuden. Bere ideien artean argi zegoen jeltzaleen lema (Jaungoikoa eta Lege Zaharra), eta bere iritiz berak izan behar zuen abertzaletasuna ulertzeko bi moduen elkargunea. Helburu hau gogoan argi zuela, Agirrek, etengabe lan egin zuen, lortu arte. Azkenean, 1930. urtean, joera biek bat egin zuten Bergarako Batzarrean. Hala ere, beranduago, beste talde bat sortu zen: Eusko Abertzaleen Ekintza, ez-konfesionala, errepublikazalea eta gizarte-izaera sendokoa.

Agirre, bere izaera eta sinismen barne-barnekoetan oinarrituz, EAJn jarraitu zuen, gero eta gai eta mugimendu gehiagoz parte hartuz, hala nola: Euzko Gaztedian eta Euzkadi egunkarian artikulua argitaratuz.



Abertzaletasunaren Agiritegia. Sabino Arana Kultur Elkargoa.

Bere ideia integratzaile eta berritzaileen adibide ona dugu 1932.ean Getxon egin zuten asanbladan erakutsitakoa. Honetan, Euskaditik kanpo jaiotakoak alderdian hartzea proposatu zuen.

Primo de Rivera jeneralaren diktadura amaitzean (1930), Euskadin eta Espainian ireki zen etapa politiko berriak, aldi berean, J. A. Agirrerren bizitza politikoari egoera berri eta garrantzitsuak ekarri zizkion.

1931ko UDAL HAUTESKUNDEAK

Primo de Rivera jeneralaren diktadura amaitu, eta hurrengo urtean, 1931.ean, udal hauteskundeak egin ziren Espainian. Errepublikanoek irabazi zituzten, eta ondorioz, urte bereko apirilaren 14an Espainiako Bigarren Errepublika aldarrikatu zuten. Eibar izan zen aldarrikapena egiten lehen herria, egun horren lehen ordutan.



II. Errepublikaren aldarrikapena Eibarren, 1931ko apirilaren 14an. Argazkiaren iturria: www.eibar.org

J. A. Agirre (27 urte zituen) EAJko hautagai izan zen hauteskunde hauetan eta aukeratu egin zuten, ordezkari-erakundeetako jardunbide politikoari ekin zion. Alderdiak gehiengo lortu zuen Getxoko Udalean, eta bertako alkate izendatu zuten. Eibarren apirilaren 14an abian jarritako joerari jarraituz Espainiar Errepublikari atxiki eta Euskadiko Errepublika aldarrikatu zuen. Aldi berean, Euskadirentzako Autonomia Estatutua eskuratzeko aparteko kanpaina abiarazi zuen.

"Espainiar Errepublika agurtzen dugu eta, Euskal Herriarentzat, Pirinioen alde honetako Euzkadiren euskal nortasun osoa aldarrikatzen dugu eta bereziki, Bizkaiaren nortasun historiko eta demokratikoa. Ondorioz, autogobernatzeko eta Batzar Nagusiak berezko ahal guztiez biltzeko eskubidea ezartzen dugu. Horretarako, aukeratu berri diren udal guztietako ordezkariak deia egiten diegu berehala bil daitezen. Hortaz, Espainiar Errepublika agurtu eta Euskal Errepublika aldarrikatzen dugu."

(J. Edorta 2000)

ESTATUTUAREN ALDEKO KANPAINA

Une honetatik aurrera, ahalegin guztiak ere ez ziren helburua lortzeko nahikoa. Gainera, ideien eta gauzatzeko behar ziren baliabideen arteko koherentzia handia erakutsi zuen beti.

Honela, berak sustatu zuen Estatutuaren aldeko alkateen mugimendua antolatu eta eratu zen. Alkateen mugimendua Eusko Ikaskuntzari eskatu zion Autonomia Estatutuaren proiektua idazteko. Elkarte honek eta Euskaltzaindiak baino ez zuten bere eragin-eremua Euskadiko lurralde guztietara hedatuta. Francisco Javier Landaburuk, elkarte honetako kide zenak, Arabaren izenean, Autonomia Estatutuaren proiektua landu zuen.



Agirre Lehendakaria eta Francisco Javier Landaburu. Abertzaletasunaren Agiritegia. Sabino Arana Kultur Elkargoa.

Agirre Lehendakariak Parisa joateko eskatu zion Landabururi, Euskaldunen Lagunen Nazioarteko Elkartearen idazkari kargua bete zezan.

Lehendakariak, orobat, erbesteko Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko harremanez arduratzeko ere eskatu zion. Landaburu, 1951. urtean sortutako Europar Mugimenduaren Euskal Kontseiluaren bultzatzaile nagusienetako bat izan eta baita, hein handi batean, Europar Batuen ideia sustatu zuenetako bat ere.

Agirre Lehendakaria hiltzean, Eusko Jaurlaritzako Sailburua zen Jesus Maria Leizaola lehendakari izendatu zuten, eta honek utzitako Sailburu kargua Landaburuk bete zuen, gerora Eusko Jaurlaritzako Lehendakariorde izango zenak.

(Caballero Basañez 2002)



Azpeitia, Laudio, Zangoza eta Getxoko alkateek, alkateen mugimenduaren Batzorde Iraunkorra osatu zuten eta Hego Euskal Herri osora hedatzen zen Estatutuaren aldeko kanpaina abiarazi zuten. J. A. Agirrek berak ere eraginkortasun handiz lan egin zuen.

Estatutuaren aldeko kanpaina hau 1931ko ekainaren 14an amaitu zen. Nafarroako herri honetan Euskadiko 427 udal-hautetsi elkartu ziren. Aitzitik, lau hiriburuetakoko alkateak ez ziren bertaratu.

Mitina Eibarren, 1933. Abertzaletasunaren Agiritegia. Sabino Arana Kultur Elkargoa.




Agirre Lizarrako zezen plazan.
Abertzaletasunaren Agiritegia. Sabino Arana Kultur Elkargoa.

Lizarran onartutako Estatutu Proiektuaren alde zeuden diputatuek Euskal Herriko 420 alkateren babespean Madrigo Gorteetan aurkeztu zuten. Ez zuen oso harrera ona izan, batik bat, Euskadiren eta Vatikanoren arteko harreman esklusiboak jasotzen zituelako, Errepublikako Gobernuak kanpo utziz.

Konsitutuzioa idatzi eta onartzea izan zen 1931ko ekainaren 28ko hauteskundeetatik sortutako Gorteen helburu nagusia. Honek, zalantzarik gabe, izan zuen eragina Madrilen zeuden euskal diputatuen eta Estatutu Proiektuaren beraren bila-kaeran.

Konsitutuzioa 1931n onartu zen eta Lizarran onartu-tako Autonomia Estatutuaren Proiektuan aldake-tak egin behar izan zituzten.



Ariketa:

5

Aztertu Espainiako 1931. urteko Hauteskunde Orokorretan alderdi politiko ezberdinek eskuratutako aulkien inguruko datuak eta azaldu nork irabazi zituen eta zein zen sortutako Gorteen eginkizun nagusia.

Alderdi politikoa

Aulki-kopurua

Sozialistak	117
Erradikalak	93
Erradikal-sozialistak	59
Esquerra	32
Ekintza Errepublikarra	27
Progresistak	27
Errepublikaren Zerbitzurako Alderdia	14
ORGA	16
Federalak eta Eskerreko independenteak	14
Nekazariak	26
"Vasconavarro"-ak	14
Lliga	3
Monarkikoak	36
Liberal Demokratikak	6

Iturria: R. Tamames (1981)

Gorteen Autonomia Estatutua lantzeko batzordea izendatu zuen, honakoek osatzen zutena: Errepublika Gobernuaren ordezkariak, Euskadiko alkateen ordezkariak eta Alderdi Sozialistaren hiru ordezkariak.

Azkenean, Lizarran onartutako Estatutu Proiektuak baino kompetentzia gutxiago barne hartzen zituen Estatutu baten testua osatu zen.

Agirrek berak, honela adierazi zuen:

"Herri gutxik gainditu behar izan dituzte gureak beste proba. Lizarran onartu genuen testua orain onartzen duguna baino hobea zen...."

J. A. Agirreren bizitzan gorabeherek honela jarraitu zuten eta 1933ko irailaren 8an Bilboko Begoñako Basilikan Mari Carmen Zabalarekin ezkondu zen.

Politika-arloan urte horretan bertan Getxoko Alkatezari uko egin behar izan zion, diputatu-lanak eta Estatutuaren aldeko ahalegi- nek denbora guztia hartzen ziotelako.

Urte horretan bertan Donostian ospatu zen Aberri Eguna, etorkizuna iragartzen zuen lema- pean: "Euskadi-Europa".



Mari Carmen Zabalarekin ezkondu zenean. Abertzaletasunaren Agiritegia. Sabino Arana Kultur Elkargoa.

Estatutuaren proiektuak aurrera jarraitu zuen, eta honela, 1933ko abuztuaren 6an, Nafarroa kanpoan utzi zuen proiektu berria onartu zen. Prozesua, hiru probintzietan egin zen errefen- derumarekin amaitu zen, zeinetan proiektuak gehiengo nabar- menaren aldeko botoa lortu zuen.

Urte horren amaieran hauteskunde orokorrak deitu ziren berriz ere Espainian. J. A. Agirre Bizkaitik aurkeztu zen EAJko zerren- dan eta diputatu aukeratu zuten atzera.


Hauteskunde hauetako emaitzek Errepublikako Gobernuaren joera aldatu zuten, eskuindarrekoek irabazi zutelako. Horrela, bada, Estatutua onartzeko aukerak zaildu egin ziren.

Lurraldea	Errolda	Emandako botoak	Aldekoak	Aurkakoak
Bizkaia	267.456	241.629(%90,3)	236.564(%88,4)	5.065(%1,9)
Gipuzkoa	166.635	151.761(%91,1)	149.177(%89,5)	2.436(%1,5)
Araba	56.056	38.819(%58,5)	26.015(%46,4)	6.695(%11,9)

1934. URTEA

Urte honetan gobernu berriaren jarrera azalatu zen eta eskuinekoen gehiengo parlamentarioa ez zegoen inola ere Estatutu Proiektuaren alde. Eragozpenek, oztopoek eta atzerapenek Gorteetako diputatu jeltzaleen eguneroko politika-jardura zaildu egiten zuten.

Errepresioak ere izan zuen bere tokia une hauetan. Gernikan, esaterako, Kataluniako parlamentarioekin batera egiten ari zen ekitaldi bat bortizkeriaz geldiarazi zuten. Hurrengo egunean, erantzun gisa, Euskadiko udal guztiak dimititu egin zuten; hautetsi batzuk auzipetu egin zituzten eta beste batzuk, berriz, atxilotu.




Informazio-kartela. Asturias 1934.
Ilustrazioaren iturria: <http://barataria.be>

Gainera, beste gertakizun bat ere nabarmetzen da urte honetan Espainiako bizitza politikoari eta J. A. Agirre diputatuarenari dagokienez: urrian Lanuzte Orokor bat izan zen, Asturias eta Katalunian eragin berezia izan zuen greba. Amaiera tragikoa izan zuen. Izan ere, Francok Marokotik heldutako soldaduekin, bortizkeria eta krudelkeriaz erreprimitu zuen greba Asturiasen.

J. A. Agirre ere harrapatu zuen abertzaletasunaren aurkako errepresioak. Diputatu izateagatik immunitatea bazuen ere, 17 adiskiderekin batera Larrinagako (Bilbo) kartzelan giltzapetu baitzuten. Azkar askatu zuten Agirre, baina ez horrela, kartzelaldi luzeagoa pairatu behar izan zuten adiskideak.

Arlo pertsonalari dagokionez, J. A. Agirrerentzat 1935. urtea Aintzane alabaren jaiotzarekin hasi zen eta urte berean "Entre la libertad y la revolución 1930-1935; la verdad de un lustro en el País Vasco" liburua idatzi zuen, borroka eta konpromiso politikoaren harrabotsean bizitako urteei buruz ikuspegi pertsonaletik egindako laburpena, hain zuzen.



"Entre la Libertad y la Revolución" liburuaren azala (1935).
Abertzaletasunaren Agiritegia. Sabino Arana Kultur Elkargoa.

Bien bitartean, Aberri Egun jendetsuak ospatu ziren: 1934.ean Gasteizen eta 1935.ean Iruñan.

Euskadirentzat Autonomia Estatutua eskuratzeko saio etengabeek erakusten diete Agirrerri eta bere alderdiari, karlista eta monarkikoekin elkarturik jarraitzekotan zailtasun handiak izango zituztela hori lortzeko. Ondorioz, aliatu politikoak aldatzeko beharra ikusi eta ezkerreko alderdiengana hurbiltzen hasi ziren. Gai erlijiosoen ingurukoak ziren alderdi bien arteko ezberdintasun nagusiak, baina beste gai batzuetan adostasun-maila handiagoa zuten hauekin eskuindarrekoekin baino.

Argi eta garbi adierazi zuen Manuel Irujok:

"Parlamentuan ezkerreko alderdiak genituen lagun eta eskuinekoak, ordea, etsai. Haei dagokienez, Francoren altxamenduaren aurrean hartu zuten jarrerak ez zuten inor harritu."
 (Zuberogoitia, 1997)



Cartel del Aberri Eguna, 1934. Fondo documental de los Padres Benedictinos de Lazkao.

J. A. Agirrek honakoa idatzi zion Jose Maria Estefaniari:

"Zenbat eta indartsuago izan eskuindarra, hainbat eta traba gehiago gainditu beharko ditu Estatutuak, eta eskuindarrak ahuldu eta ezkerrekoak sendotzen diren heinean, Estatutuari bidea errazten zaio. Hau da gure ezbarra."
 (Zuberogoitia, 1997)



Aberri Eguna, 1932. Iturria: <http://www.argia.com/mendea/irudiak/32aberri.jpg>



Abertzaletasunaren Agiritegia. Sabino Arana Kultur Elkargoak utzitako argazkiak..

1936. URTEA

Urte honetako hauteskundeetara heldu gara. Espainia erdibituta zegoen politikaren arloan, batetik ezkerreko alderdiek osatzen zuten blokea zegoen, eta bestetik eskuinekoena.

Aipatu dugun bezala, EAJkoek ezkerreko alderdietara jo zuten Estatutua onartzeko asmoz. EAJren norabide aldaketa hau, alderdiak hauteskunde-kanpainarako aukeratu zuten leman suma daiteke, horretan pentsamolde tradizionala ezkertiarren planteamenduekin bateratzen baitira:

Kristau zibilizazioaren alde!

Aberriaren askatasunaren alde!

Gizarte justiziaren alde!

J. A. Agirre Bizkaiko zerrendako lehen postuan aurkeztu zen, eta berraukeratu egin zuten.

Eskuineko ideien inguruan bildutako alderdiek porrot egin zuten hauteskunde honetan, ezkertiarrek biltzen zuten Frente Popularra nabarmen nagusitu baitzen.

Gobernu berriak Kataluniako Estatutua berrezartzea erabaki zuen. Erabaki honek euskal abertzaleei adore eman zien, beraientzat gauza bera lortzeko aukera ikusi baitzuten. Egoera politiko honetan 1933ko Estatutaren testua berreskuratu eta Gorteetara eraman zuten.

Apiriletik uztaileira helburu bakarra izan zuten: Estatutuaren onarpena lortzea. Horretarako, Indalecio Prietok zuzendu zuten Estatutuen Batzordea eratu zen Gorteetan.

GERRA ZIBILA ETA EUSKO JAURLARITZA

19

Militarren haserreari buruzko zurrumurruek gero eta sendoagoak ziren 1936. urteko erdialdera. Iragarpen okerrenak egiaztatuz, Afrikako soldaduek Errepublikaren kontrako altxamendu militarra burutu zuten, Franco, Mola eta Queipo de Llano jeneralak buru zirela.

Estatutuen Batzordearen lanak larriki zaildu ziren. Gerra Zibilaren (1936-1939) hasieran gaude eta hemendik aurrera dena aldatu zen J. A. Agirreren bitzitza politiko eta pertsonalean, Gerra Zibilean zehar eta geroko erbestealdian une zail eta gogorrek bizi behar izan baitzuten.

Gertaeren ondorioz, honakoa argitaratu zuen Euzkadi egunkariak uztailaren 19an:


"Ez da Monarkia eta Errepublikaren arteko borroka, ez eta beraien printzipioak herriaren eta Errepublikaren alde jartzen gaituena, askatasuna eta gure herria erregimen demokratiko eta errepublikazalearen alde daude."

(Zuberogoitia, 1997)

Estatutua onartzeko 1936ko urriaren 1eko saioan ere J. A. Agirrek ildo bereko adierazpen publikoa egin zuen:

"Arazoa azaltzean, gure jarrera oso argia izan da: faxismo eta inperialismoaren borroka Euskal Herriaren kontrako denez, abertzaletasunak demokraziaren eta gure askatasunaren alde azaldu behar du, historian zehar egin duen bezalaxe."

(Zuberogoitia, 1997)



Ariketa:

6

Lot itzazu gezien bidez ondorengo pertsonaien izenak, Errepublika defendatu zutenekin edo Franco jeneralaren Kolpe Militarraren aldekoekin.

J. A. Agirre
Mola jenerala
Manuel Irujo
Indalecio Prieto
Queipo de Llano jenerala
Juan Ajurriagerra
Largo Caballero
Manuel Azaña
Franco jenerala

Errepublikaren aldekoak

**Franco jeneralaren
Kolpe Militarraren aldekoak**

J. A. Agirrek aipatutako hitzak bota zituenetik bost egunera, 1936ko urriaren 6an, Manuel Azañak, Gobernuko Presidenteak, Estatutua onartzeko dekretua sinatu zuen.

Lehenago, 1936ko irailean, Manuel Irujo, EAJko diputatu gisa, Largo Caballero sozialistaren Gobernuan sailik gabeko ministro izendatu zuten, Estatutua onartua izan zedin, halabeharrezko baldintza baitzen horren parte-hartzea.

Urriaren 7an Lehendakaria hautatzeko hauteskundeak egin ziren Bilbon. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zinegotziek bozkatu eta J. A. Agirre Eusko Jaurlaritzako lehenengo Lehendakari aukeratu zuten aho batez. Egun horretan bertan, karguaren zina egin zuen Gernikako Batzar Etxean, ehun urtetik gorako arbolaren azpian. Lehendakariak 32 urte zituen.



Agirre Gernikako Batzar Etxean Lehendakari karguaren zina egiten. Abertzaletasunaren Agiritegia. Sabino Arana Kultur Elkargoa.



Honako formula hau hautatu zuten:

Jaungoikoaren aurrean apalik,
Euzko-lur gainean zutunik,
Asaben gomutaz,
Gernikako zuhaizpean
Nire agindua ondo betetzea
Zin dagit.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak karguaren zina egiteko dokumentuaren sinadura "Pro libertate patria" Erakusketa. Abertzaletasunaren Museoa. Sabino Arana Kultur Elkargoa.

G. Steer-ek, The Times egunkariko kazetariak, deskripzio hau egin zuen:

"Ez zen altua. Ongi burututako aurpegia zuen eta begi biziak, ironiko samarrak, zituen. Bekain zuzen eta beltzak, bien artean (...) Sudur mehe eta estua zuen eta aho zuzena. Goiko ezpaina uzurtzea, askotan praktikan jartzen zuen autokontrola adierazten zuen.

Idealista peto-petoa zen, ezer baino lehen (...). Politikari eta gazte azsetikoa, azkenean, egoera zailenetan bere fedeari eutsi behar izan ziona".

(Zuberogoitia, 1997)

Steer, G.L. (1978) *El árbol de Guernica*. Madrid. Felmar.



Ariketa:

7

Irakur ezazu

<http://www.el-mundo.es/ladh/numero57/guernica.html>

web orrian G. Steer kazetariari eta Gernikako bonbardaketari buruzko informazioa.



Ezin dugu ahaztu Espainia gerran zegoela azken hiru hilabeteetan eta, ordurako matxinatuek Araba eta Nafarroa menpean zutela. Kontuan izan behar da altxamenduaren hasieratik estatu-kolpearen buruetariko bat lurralde horretan zegoela: Mola jenerala. Bizkaia eta Gipuzkoaren egoera une horretan bestelakoa bazen ere, irailaren 5ean Gipuzkoa hartu zuten.




1936ko abuztuan matxinatuen eta errepublikarren mende zeuden zeuden eremuak. Iturria: <http://www.sip.uiuc.edu/SPAN240/mapas/map4a.jpg>

Egoera nahasi honetan abiarazi zen Eusko Jaurlaritzak. J. A. Agirrek, herrialdeak bizi zuen egoera kritikoan oinarrituta, hainbat alderdiz osatutako kontzentrazioko gobernuak eratu zuen.

Lehendakariak Eusko Jaurlaritzaren buru izateaz gain, Defentsako saila hartu zuen bere gain. Ogasunaz Heliodoro de La Torre (EAJ) arduratu zen, Justizia eta Kulturaz, Jesus Maria Leizaola (EAJ) eta Gobernazio Sailaz, Telesforo Monzon (EAJ).

Ramón M. Aldasorok (Ezkerreko Alderdi Errepublikarra) Merkataritza eta Hornikuntza Saila zuzendu zuen, Alfredo Espinosak (Batasun Errepublikarra), Osasun Saila eta Santiago Aznarrek (PSOE), berriz, Industria Saila. Lan, Proiektu eta Komunikazio Saila Juan de los Toyosen (PSOE) esku gelditu zen eta Gizarte Laguntza Saila, Juan Garciaren (PSOE) esku. Gonzalo Nardiz (EAE) Nekazaritza Sailburua izan zen eta Juan Astigarribia (Alderdi Komunista) Lan Sailburua.



Lehenengo Eusko Jaurlaritzako kideak.
Gernika, 1936ko urriaren 6a.
Abertzaletasunaren Agiritegia. Sabino Arana
Kultur Elkargoa.

Gerrak baldintzatu zuen gobernu hau. Anarkistak izan ezik, gainerako alderdi guztiekin osatu zen Gobernu hau, denon ahaleginen bidez askatasunaren alde lan egiteko.

Gobernu honen helburu nagusia gerran garaile ateratzea zen, eta aldi berean, ahal zen neurrian, Herriaren normaltasuna mantentzea.

Gobernu honen testuingurua hain berezia izan zen, ezen Gobernu autonomiko moduan beharrean, Gobernu independente gisa jardun baitzen.



Carlton Hotela, Eusko Jaurlaritzaren
egoitza Gerra Zibilean.
"Pro libertate patria" Erakusketa.
Abertzaletasunaren Museoa. Sabino Arana Kultur Elkargoa.



Otxandioko frentean.
Abertzaletasunaren Agiritegia. Sabino Arana Kultur Elkargoa.

Gerra-garaiko egoerak eta beharrek gerra-politika egitera eraman zuten Eusko Jaurlaritzak. Hala ere, ez zion legez eraturako gobernuari dagozkion proiektuak gartzeari utzi, askatasunak, eskubide demokratikoak eta erlijio- eta kontzientzia-askatasuna aldarrikatu baitzituen.

Eusko Jaurlaritzari suertatu zitzaion lehenengo beharra denfentsa antolatzearena izan zen eta, ondorioz, indar militar bat sortzearena: Euskal Armada (Eusko-Gudarostea). Egun milatik gora gizonak osatu zuten; artean, gudariak eta milizianoak. Lehenengoak EAJko soldadu boluntarioak ziren, eta bigarrenak, berriz, alderdi politikoen eta sindikatuen antolatutako miliziak. Ideologien arabera antolatutako batailoitan banatu ziren: sozialistak, komunistak, abertzaleak eta anarkistak. Ez zen armada profesionala izan eta, honek, agerian utzi zituen, besteak beste, gai militarren inguruko prestakuntza eta trebakuntzarik ezak eta arma eta munizio eskasiak.

Eusko-Gudarosteari dagokionez, 1936ko autonomia-estatutuak ez zuen euskal armada autonomia eratzeko aukera jasotzen. Bai, ordea, 1931. urtean Eusko Ikaskuntzak idatzitako estatutu-proiektuak.

"Las milicias vascas". Cuadernos "Sancho El Sabio".1994. Vasconcelos. 39. or.

Ezer gutxi egin ahal izan zuen armada honek frankisten aurrean; izan ere, Italiaren eta Alemaniaren laguntza izan baitzuten, horrela lehiakideei soldaduak edo armak ematea debekatzen zuen nazioarteko blokeoa hausten zuten arren.

Dena den, nahikoa denbora eutsi zion Euskal Armadak fronteari. Errepublikako Gobernuak ere oso gutxi lagundu zuen; oso arma gutxi eta desegokiez osatutako arma-kargamentu bakar bat bidali zuen.

Honela definitu zuen J. A. Agirrek:

"Hegazkinak onak ziren orduko garaietarako, Errusian egindako Curtis izeneko ehiza-hegazkinak, tanke zaharrak eta matxurez josita (...) kanoiak erabiltzeko moduan zeuden, baina munizio gutxi zegoen, metrailadoreak gaizki zebiltzan, eta erdiak baino gehiago bota egin behar izan genituen (...)"

(Zuberogoitia, 1997)



Cuadernos "Sancho el Sabio" Koadernoak.
"Las milicias Vascas". Vasconcelos. Caja Vital Kutxa Fundazioa,
Vitoria-Gasteiz,1994. 39. orr.



"Ertzaña Igiletua"-ko kideak.
Abertzaletasunaren Agiritegia. Sabino Arana Kultur Elkargoa.

Polizia sortzea Estatutuan jasotako beste eskumen bat zen. Eusko Jaurlaritzari zegokion lurralde autonomoaren tutoretza juridikoa eta ordena publikoa mantentzea. Mugak, armen merkataritza eta lurraldez gaindiko eta kanpoko gatazkak, berriz, Gobernu Errepublikarraren esku zeuden.

Ordena publikoa mantentzea ezinbesteko egintza bihurtu zen Eusko Jaurlaritzarentzat. Horretarako, Ertzaña sortu zuten, bost konpainiatan egituratutako boluntario-taldearekin, konpainia bakoitzean 107 gizon zirela. Eusko Jaurlaritzak Getxoko hainbat eraikin erabili behar izan zituen hauek kokatzeko.

Polizia Motorizatua (Ertzaña Igiletua) ere sortu zen. "Bizia, azkarra eta gaur egungo baliabideez hornitua" izan behar zuen. Hasiera batean mila gizon inguruk osatu zuten talde hau, tartean, motor-gidariak, mekanikariak eta mantentze-lanetakoak, horien buru zen Picaza komandanteak hiru konpainiatan elkartu zituen: Transmisore, Motor eta Auto Konpainietan. Laugarren bat ere eratu zen, Francisco Orive komandantearen ardurapean, hornikuntzaren erantzule eta Eusko Jaurlaritzaren bitarteko zena. 1937. urteko udaberrian, Bizkaiaren aurkako erasoaldia hasi zenean, kuartel nagusien eta Dibisio eta Brigaden arteko bitarteko-lana hartu zuen bere gain Polizia Motorizatuak. Esan behar da Polizia Motorizatua eta Ertzaña aparteko bi kidego izan zirela eta bien arteko lotura bakarra horiek bultzatu zituen saila izan zela.

Gerrak aurrera zihoan, eta 1937. urtean Euskal herria okupatzea Francoren soldaduen helburu nagusi bilakatu zen. Urte bereko apirilean ekin zioten erasoari: Durango lehenbizi, eta apirilaren 26an, Gernika bonbardatu zuten. Nazien Alemaniako Condor Legioak burutu zuen azken hau, eta ondorioz 150 hildako izan ziren.




Gernikako Bonbardaketa.
Abertzaletasunaren Agiritegia. Sabino Arana Kultur Elkargoa.

Condor Legioa


Condor Legioa 1936ko azaroan eratu zen, Sperrle jeneralaren agintaritzapean. 6000 gizonen eta hegazkin ugari osatzen zuten.

- "Messerschmitt 109" ehiza-hegazkinen 4 eskoadrilez osatutako 2 talde; guztira, 72 hegazkin.
- "Heinkel 51" ehiza-hegazkinen 2 eskoadrilez osatutako 2 talde; guztira, 36 hegazkin.
- "Heinkel 111" eta "Junker 52" errekonozimenduko 3 eskoadrilez osatutako talde; guztira, 27 hegazkin.
- "Heinkel 111" eta "Junker 52" hegazkin bonbaketarien 3 eskoadrilez osatutako 4 talde; guztira, 144 hegazkin.

Iturria: R. Tamames (1981).



Irudian azaltzen den "Junker 52" bezalako hegazkin bonbaketariak erabili ziren Gernikako bonbardaketan.



Ariketa:


8

Iker ezazu zeintzuk izan ziren Picasso koadro hau margotzera eraman zuten arrazoiak eta azal ezazu laburkiro horren esnahia (Jarrian azaltzen den testua erabil dezakezu).



Gernikako bonbardaketaren berri izatean, Steer eta beste hiru kazetarik bizkor egin zituzten Bilbo eta Gernika artean dauden 30 kilometroak eta gau horretan bertan kable bidezko mezuak bidali zituzten Londres. Honela, bonbardaketari buruzko berria Londresko egunkari guztietan agertu zen hurrengo eguneko goizeko egunkarietan titular handietan. The Times, goizeko egunkariak, berria asteazkenara arte argitaratu ezin zuenez, Steer goizaldeko ordu bietan Gernikara itzuli zen hiribilduko kaleak behatzera. Hemen, -zortzi ordu beranduago- suhiltzaileak oraindik ere suteak itzali eta hondakinen azpian harrapatuta zeudenak ateratzeko ahaleginetan zebiltzan.

Michael Alpert "Telegrama de Guernica"



25

Fase honetan, populazio zibila jomuga militar izatera pasatu zen. Izan ere, honek, bereziki haurrak herritik atera eta Europako herrietara, Sobietar Batasunera eta beste hainbat lekutara eramatera behartu zuen Eusko Jaurlaritza.

Jose Angel Arrietaren gogoetak

"Bilboko geltokitik Santurtzirantz abiatu ginen. Orduan geltokia, gerra zela- eta, Villarias kalean zegoen eta egurrezkoa zen oso-osorik. Ezer gutxi gogoratzen dut Santurtziko agurraz. Nire berederatzigarren urtebetetzearen bezpera zen.

Nabigatu genuen lehenengo egunean, denontzat itsasontziz ateratzen ginen aurreneko aldia zelako eta itsasoaren egoera txarragatik, ez zen inor botaka egin gabe gelditu. Hurrengo egunean, itsasoa bare zegoela, primeran pasatu genuen eta baimenduta zeuden leku guztietan ibili ginen.

Zeharkaldian zehar, edo behintzat ideia txiki hori daukat, Francoren armada matxinatuaren gerra-itsasontzi batekin topo egin genuen, baina berehala urrundu zen.

Southampton-en aparteko ongi etorria egin ziguten. Itsasontziaren inguruan txalupa motordunak zebiltzan eta kaian jende mordoa zegoen, guri gozokiak eta dirua botatzen (...).

Ni baino gazteagoak ziren bi lehengusurekin joan nintzen. Ontziratutako lehen, bere gurasoek behin eta berriz eskatu zidaten haiek ondo zaintzeko".

"Corazón de cartón" Domingo Eizaguirrek bildutakoa, 1999.

Jazoera hauek guztiek, Euskal Herriaren eta J. A. Agirre Lehendakariaren izaera, balioak eta printzipioak proban jarri zituzten. Egun horietan, Mussolinik, Italia faxistako Kanpo Gaietarako Ministroa zen Conde Ciano-ren bitartez, bizitzak eta ondasunak errespetatzearen truke amore emateko eskatu zion J. A. Agirreri. Honek, herriarenganako zuen konpromisoari irmo eutsiz, ezezko biribila eman zion.



Gero eta zailagoa zen fronteari eustea. 1937ko ekainaren 19an Francoren armadak Bilbo menderatu eta euskal soldaduek eta Eusko Jaurlaritzak Turtziozera alde egin behar izan zuten, eta handik Kantabriara.

J. A. Agirreren asmoa soldaduak Kataluniara eramatea zen eta han frankisten aurka borrokatzea, Errepublika eta Eusko Jaurlaritza defendatzeko. Baina azkenean ez zuen hori erabaki. Juan Ajuriagerrak, 1937ko abuztuaren 24an, EAJren izenean, Santoñako Ituna sinatu zuen Manzini italiar jeneralarekin. Honela, euskaldunek armak eta gerra-materiala italiar armadari entregatzearen truke, gudarien bizitza errespetatu eta Eusko Jaurlaritzaren atzerriratzea lortuko zuten. Italiarrek ez zuten akordioa bete eta J. A. Agirrek Santenderretik alde egin behar izan zuen atzerrira euskal armadarena zen Negus hegakinean Miarritzerantz. Berarekin batera Telesforo Monzón eta Heliodoro de La Torre erbesteratu ziren. Egoera honen aurrean honakoa adierazi zuen:

"Lurraldea menperatuta egongo da; ez ordea Euskal Herriaren arima; ez dute inoiz menderatuko"

Erbesterantz. Iturria:

<http://w3.bcn.es/fitxers/home/agenda/exilinsens.917.jpg>

Miarrizetik Bartzelonara joan zen Agirre, eta bertan geratu zen armada frankista Katalunian sartu eta Bartzelona menderatu zuen arte. Manuel Azaña, Espainiako gobernuko presidentea, Companys, Generalitateko presidentea eta J. A. Agirre Frantziako mugatik ihes egin zuten. Erbestealdian, Manuel Irujo, Julio Jauregi eta Joseph Tarradellas eta Nicolau d'Oliver buruzagi kalatanistak izan zituen lagun Agirrek. Honela hasi zen J. A. Agirreren bizitzako beste etapa bat.

Une honetatik aurrera, Eusko Jaurlaritzak erbesteratutik, buru-belarri egin zuen lan J. A. Agirre, Euskal Herriaren eta mundu osoko askatasun-eskubideen alde.



J. A. Agirre Lehendakariaren bulegoa.
"Pro libertate patria" Erakusketa.
Abertzaletasunaren Museoa. Sabino Arana Kultur Elkargoa.

Erbestealdiko Eusko Jaurlaritzak Parisko Marceau kaleko 11. zenbakian jarri zuen bere egoitza. Bi izan ziren burutu zituen egiteko nagusiak: milaka errefuxiatu eta atzerriratuei laguntza ematea eta II. Mundu Gerra garaian aliatuei laguntzea, hau amaitzean, Aliatuek Francoren aurka egingo zutelakoaren itzaropenez. Baina hori ez zen inoiz gertatu. Orduan, Agirre Lehendakariak dena eman zuen abian zegoen Estaturen Europari aurre egiteko Herrien Europa sortu nahian.



Eusko Jaurlaritzaren bilera erbestealdian, 1951.
Abertzaletasunaren Agiritegia. Sabino Arana Kultur Elkargoa.

Alemaniak Polonia indarrez hartu zuen 1939an. Erresuma Batuak eta Frantziak gerra deklaratu zioten Alemaniari eta honela hasi zen II. Mundu Gerra.

Frantziaren aurkako alemanen erasoak, 1940ko maiatzean, Belgikan (La Panne herrixkan) harrapatu zuen J. A. Agirre. Encarna arreba eta Cesáreo de Asporosa laguna alemanen bonbardaketan ondorioz hiltzen ikusi zituen Agirrek.

La Pannetik Bruselara joan zen Agirre. Hemen alemanengandik ezkutaturik eta ihesi ibili behar izan zuen. Halako batean, Companys-en (Generalitateko Presidentea) atxiloketaren berri izan zuen. Alemanek Frantzian atxilotu zuten eta Francoren soldaduei entregatu ondoren, Montjuic-en fusilatu zuten. Une hauetan, Agirre bera ere Franco jeneralaren heriotza-zigor pean zegoen.



J. A. Agirre, Alvarez Lastra doktorearena egiten.
"Jose Antonio Agirre" Aitor Zuberogoiaren liburutik hartua. Elkar. 79. orr.

Bruselan, jesuiten San Fco. Javier Ikastetxean babesa hartu zuen, eta handik Anberesera joan zen trenez. Anberesen Panamako Guardia Jaén kontsularen laguntza izan zuen, Jose Alvarez Lastra panamar abokatu aberatsaren izenpeko pasaportea eman baitzion.

Agirre Lehendakariak Amerikara lehenbailehen ihes egin nahi zuen, baina itxaron egin behar izan zuen. Gestapok anaia atxilotu zuen Anberesen. Ustekabean, Berlinera (Nazien Alemaniako hiriburura) joatea erabaki zuen 1941ean, eta hemen, lau hilabetez, Reich-aren Kantzelaritzatik oso gertu bizi izan zen. Familia Lovainan zuen.

Maiatzaren 20an, berarentzat eta familiarentzat suediar bisa lortu eta, azkenean, 1941eko maiatzaren 23an Suderiarantz abiatu zen itsasontzi batean. Trellebogera-ra heldu eta Goteborg-erako bidea hartu zuen. Ez zen erraza izan Rio de Janeiroarako txartela eskuratzea, baina 1941eko uztailaren 31n Vasholm merkataritza-ontzia hartu eta Amerikarantz irten zen.


Brasildik Uruguaira, eta hemendik, J. A. Agirre izenarekin eta Eusko Jauriaritzako Lehendakari moduan dagoeneko Buenos Airesera. Estatu Batuak II. Mundu Gerran sartu zirenean, Buenos Airesetik New York-era abiatu zen. Hemen, Columbiako Unibertsitateko irakasle-lana eskaini zioten, Euskal Kultura eta Historia irakasteko.

1942. urtean gaude. Hauek ziren Agirre Lehendakariaren helburuak: Eusko Jauriaritza berrelkartzea eta Aliatuekiko harremanak sendotzea. Bizitako gorabehera guztien ondoren, maiatzean, "De Guernica a Nueva York pasando por Berlín" liburua kaleratu zen. Geroago, "Historia del País Vasco" idazteari ekin zion baina ez zuen inoiz amaitu. Lan honetatik makinaz idatzitako 520 orrialde heldu zaizkigu.


Udazkenean, Hego Amerikan zehar bidaiatu zen eta, euskaldunen kolonia ugari bisitatu eta Euskal Herriaren orainari eta geroari buruzko hitzaldiak eman zituen.

J. A. Agirrek, nazioarteko bazter guztietara eraman nahi zuen euskaldunen ahotsa. 1945. urtean, San Frantzikon, Nazio Batuak sortzeko lehen Konferentzian parte hartu zuen.

Agirrek nazioartean eta Aliatuen garaipenean zituen itxaropen guztiak.



De Guernica a Nueva York pasando por Berlín" liburuaren azala. Abertzaletasunaren Agiritelia. Sabino Arana Kultur Elkargoa. Nortasin agiria. "Pro libertate patria" Erakusketa.. Abertzaletasunaren Museoa. Sabino Arana Kultur Elkargoa.



Ariketa:

9

Adieraz ezazu mapako lekuei zein zenbaki dagokion, Agirre Lehendakaria 1937an Santanderretik irten zenetik egin zuen ibilbideari jarraituz.

Goteborg (Suedia); Paris; New York; Montevideo; Rio de Janeiro; Buenos Aires; Anberes; Berlin; Santander; Bartzelona; Paris; La Panne (Belgika); Miarritze; Brusela.

1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	
10	
11	
12	
13	
14	



29

DIASPORA

Agirre Lehendakariak New York eta Eusko Jaurlaritzaren Parisko egoitzan lehentasunezko jomuga bat izan zuen: herritik kanpo bizi ziren euskaldunak. Behin eta berriz bisitatu zituen amerikar kontinenteko ia herrialde guztietan bizi ziren euskaldunen komunitate nagusienak, sakabanaturik zegoen komunitatea mobilizatu eta antolatzeko asmoarekin. Baikor beti, berak ere bete ezin izan zuen itxaropenaz blaitzen zituen guztiak esaldi famatu harekin: "datorren urtean etxera".


Frantziara joan eta izaera kristau-demokrata zuten Nazioarteko Talde Berrien (NTB) sorreran eta garapenean esku hartu zuen 1947an, eta baita Euskaldunen Lagunen Nazioarteko Elkartearen ere. Azken honek 50.000 bazkide baino gehiago izan zituen eta hauen artean, besteak beste: Verdier eta Griffin kardinalak edo F. Mauriac eta J. Maritain politikariak.

Agirre Lehendakariak, askatasunean, justizian, bakean eta tolerantzian oinarritutako europar ordena politiko berri bat du buruan eta honela bihurtuko da Europaren ideia eta jaiio berria zen kristau-demokraziaren sustatzaile garrantzitsu.

Nabarmen azaltzen da ordurako zuen ikuspegi europazalea, oraindik europar erakundeen ideia zehaztu eta antolatu gabea besterik ez zen garaietan. Bere eginkizun politikoak eta nazioarteko kristau-demokraziaren mugimenduaren alde egin zuen lanak egoera ezin hobean jarri zuten Agirre Lehendakaria II. Mundu Gerraren ostean sortu ziren korrante europazale berrietan parte hartzeko.



Agirre Europako integrazioaren lehen urratsen lekuko izan zen, Europako Herriak sortzeko 1951 eta 1957ko hitzarmenak sinatzean. Agirre Lehendakariarentzat argi zegoen Euskadi ezin zela Europatik kanpo egon, European parte hartu ezean Euskadik dena galduko zuela betiko.



Ariketa:

10

Irakur itzazu azpiko testuak eta erantzun galdera hauei: Parekatu al daitezke Robert Schuman-ek eta Agirre Lehendakariak Europari buruz dituzten iritziak? Zertan datoz bat?

"Bakea eta berezko antolamendua lortu nahi duen Europak ezin du bere baitan zapalduetako naziorik onartu. Ezin da horrelako Europa bat ulertu.

Federazioa askatasunerako bidea da, berdinen arteko konpromisoa baitu iturburu. Estatuaren subiranotasunaren kontzeptu zaharra nabarmen aldatzean, nazioen askatasuna erdietsi eta bateratu nahi du etorkizunean oinarritutako filosofia politikoak, honek ematen baitie esparru politiko eta ekonomiko zabalagoetan parte hartzeko aukera.

Izan ere, estatuz gaindiko egitura irekiago hauetan datza herrien bermea, batez ere txikiena."

Jose Antonio Agirre. 1943ko abendua.



Abertzaletasunaren Agiritlegia.
Sabino Arana Kultur Elkargoa.




1950eko maiatzaren 9ko Adierazpena

"Munduko bakea ezin da mantenttu, mehatxatzen duten arriskuen tamainako ahalgin sortzaileak egin gabe.

Europa antolatu eta bizi batek zibilizazioari ekar diezaiokeena ezinbestekoa da harreman baketsuak mantentzarazteko.

Europa ez da denon arteko ekintza batez egingo, ezta bat batean ere: aldiz, egitatezko solidaritatea eragiten duten ekintza konkretuei esker gauzatuko da."

Robert Schuman. Frantziako Atzerri Ministroa eta europar ideiaaren "aita"-tzat hartzen dena.




Funtsezkoa da 1947. urtea nazioarteko egoeran. Blokeen politika eta Gerra Hotzarekin dena aldatu zen. Egoera berri honek Francoren alde egin zuen, izan ere, Ardatzeko indarrekin aliatutako etsai potentziala, eta beraz, II. Mundu Gerran menderatuen artekoa izateari utzi baitzion eta Sobietar komunismoaren eta bere politika hedatzailearen kontra Europan ari zirenen aliatua izatera heldu zen. Nazioartean Francoren diktadura onartu zenez, NBEan sartu zen 1954. urtean.

Diktadurak Europan hartu zuen leku berriaren ondorioz, Eusko Jauriaritzaren Parisko egoitza Francori entregatu zioten, Espainaren diruz ordaindu zelakoaren aitzakiaz. Irain itzela izan zen hau Agirre Lehendakariarentzat. Frantziako Gobernuak beste egoitza bat eskaini bazion ere, nahiago izan zuen Amerikako euskal komunitateari laguntza eskatu eta Parisko Singer kaleko eraikin bat erosi Eusko Jauriaritzaren egoitza berria jartzeko.



Eusko Jauriaritzaren bilera New York-eko Delegaritzan. 1944. Abertzaletasunaren Agiritegia. Sabino Arana Kultur Elkargoa.

1949. urtean, bere lagun A. De Gaspari eta W. Churchill-ekin (batzarraren ohorezko presidentea) batera Bruselako Europar Biltzarrean esku hartu zuen ohorezko lehendakariorde gisa.



Ariketa:

11

Defini itzazu labur honako kontzeptu hauek: Blokeen Politika eta Gerra Hotza.

Blokeen Politika

Gerra Hotza

1955ean, berriro ere, Hego Amerikara joan zen Agirre Lehendakaria, euskaldun guztien gogoia eta kementa pizteko asmoz.

I. EUSKAL MUNDU BILTZARRA

Euskal Herria nazioartean ezagutaraztea izan zen J. A. Agirrek sekula eta beti izan zuen nahia.

1956ko irailaren 23tik urriaren 1era I. Euskal Mundu Biltzarra egin zen Palais D'Orsay-n. Hasierako egunak bat etorri ziren Estatutua onartu zeneko 20. urteurrenarekin. Lehendakariak, hasierako ekitaldian, eman zuen hitzaldian Eusko Jaurlaritzaren zuzendaritzan emandako 20 urteak (1 boterean eta 19 erbestealdian) aztertu zituen. Izandako akatsak eta porrotak onartu zituen, besteak beste, Franco nazioartean sartzen utzi izana.

Hurrengo urteko egoerak ondokoa esanarazi zion:

"Penintsulako herriak zapaltzen dituen erregimenari laguntzen dion arrazoirik sendoena baionetak eta Ipar Amerikako dolarrak dira."

(Muga, 1982)



Handik aurrera Agirre desengainatua sentitzen da eta Aliatuen aldetik politikoki baztertua.

I. Euskal Mundu Biltzarrera alderdi politikoetako, sindikatueta eta kulturaren arloko ordezkariak bertaratu ziren.

Lau gairen inguruan antolatu zen Biltzarra: Politika, Gizarte eta Ekonomia, Kultura eta Aisialdia.

Biltzar honen ondorioz "Euskal Kulturaren Alde" (E.K.A.) Batzordea sortu zen. Talde honek, euskal kulturaren sustapenaren inguruan, euskal hizkuntza babesteko programa eraginkor bat lantzeak lehentasuna hartu zuen. Honako hauek izan ziren, besteak beste, batzordekideak: Jose Miguel de Barandiaran, Jesus Maria Leizaola, Josu Solaun, Telesforo Monzon, Gonzalo Nardiz (diruzaina) eta Jokin Zaitegi (lehendakaria).

JOSE ANTONIO AGIRREREN HERIOTZA

Bularreko angina batek jota 1960ko martxoaren 22an, 56 urte zituela, zendu zen Agirre Lehendakaria.

Zeharo hunkitu zituen euskaldun eta mundu osoko demokrata guztiak Agirrereren heriotzak. Gorpua, Parisetik Donibane Lohizunera eraman eta han, Monzondarren etxean, hil-kapera jarri zuten. Hilaren 28an, hileta-elizkizunen ondoren, ehortzi egin zuten.

Francoren debekua hautsi eta Euskal Herri osoak eman zion azken agurra, gizarte-estamentu guztiak bertan ordezkaturik zirela, "euskal balioen enbaxadore onenari, porrot eginda ere duintasuna erakutsi zuen borrokalari handiari, askatasunaren etsaiak beste areririk izan ez zuen lagunari".




Agirre Lehendakariaren ehorzketa eta Leizaolaren zin egitea. 1960ko martxo. Abertzaletasunaren Agiritegia. Sabino Arana Kultur Elkargoa.



Agirrereren heriotzaren ostean, erbestealdiko Eusko Jaurlaritzak aurrera jarraitu zuen Paristik, Jesus Mari Leizaola Lehendakariaren eskutik, 1979. urtean Euskadira heldu zen arte. Ordutik hona hiru lehendakari izan dira: Carlos Garaikoetxea, Jose Antonio Ardanza eta, egungoa, Juan Jose Ibarretxe.

Hitz batez esan dezakegu, Agirre Lehendakaria gizatiartasun handiko gizona izan zela, politikari sendoa eta europazale sutsua. Atsegina eta baikorra zen, eta gatzetatik nabarmendu zen estatu-gizontzat eta euskal kausaren defendatzailetzat. Bere ikuspegi aurrekoia abiapuntu hartuta, etengabe defendatu zuen Euskadiren lekua Europan eta munduan.

Errepublika garaiko Eusko Jaurlaritzaren Bilboko egoitza izan zenaren ondoan inauguratutako eskultura, jaiotzaren mendeurrena ospatzeko.



Ariketa:

12

Jar itzazu denbora-segida honetan, J. A. Agirrereren bizitzako gertaera garrantzitsuenak:

1. Francok Bilbo hartu zuen.
2. J. A. Agirre Larrinagako kartzelan espetxeratu zuten.
3. Agirre Lehendakaria hil zen Parisen.
4. J. A. Agirre jaio zen.
5. I. Euskal Mundu Biltzarra.
6. Eusko Jaurlaritzako Lehendakari karguaren zina egin zuen.
7. Aitaren heriotza.

1904 (Mar.-6)

1920

1934

1936 (Urri.-7)

1937 (Ek.-19)


1956

1960

Urtea	JOSE ANTONIO AGIRREREN INGURUKO GERTAKIZUNAK	ESPAINIAN	MUNDUAN
1904	Bilbon martxoaren 6an jaio zen.	Gizarte-mugimenduak eta -gatazkak.	Lehenengo Mundu Gerra.
1919	Gazte Katolikoek elkarteko kidea.	Marokoko Gerra.	Errusiar Iraultza.
1920	Zuzenbideko ikasketak.		
1925	Aitarek heriotza. Athletic-eko jokalaria.		Mussolinik agintea esku-ratu zuen
1926	Soldaduska Bilbon.	Miguel Primo de Rivera jeneralaren diktadura.	
1927	Esteban Bilbao abokatuaren bulegoan lan egin zuen.		Krisialdi ekonomikoa.
1929	Antonio Berreteaga lagunarekin batera abokatu-bulegoa ireki zuen Bilbon.		
1931	Getxoko alkate izendatu zuten. Estatutuaren aldeko kanpaina abiarazi zuen. Diputatu Madrilen.	Espainiako bigarren Errepublika.	
1932	Lehenengo Aberri Eguna.		
1933	Mari Zabalararekin ezkondu zen. Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak Estatutua onartu zuten Erreferendum bidez. Diputatu berraukeratu zuten.	Eskuindarrek irabazi zituzten hauteskundeak.	Hitler agintari Alemanian.
1934	Estatutuari buruzko eztabaidaren blokeoa Madrilen. Errepresioa: buruzagi abertzaleak espetxeratu zituzten.	Mugimendu iraultzaileak Asturias eta Katalunian.	
1935	Aintzane alabaren jaiotza.		
1936	Estatutua onartu eta Eusko Jauriaritzako lehendakari aukeratu zuten.	Gerra Zibila hasi zen.	
1937	Francoren tropak Bilbon sartu ziren. Turtziozerantz lehenengo eta ondoren Kataluniara ihesi.		
1939	Erbestealdia Frantzia.	Gerra Zibilaren amaiera.	
1940	Erbesteratua, Belgika, Brusela, Anberes eta Berlinen.		
1941	Berlingo egonaldia ostean, berriz ere familiarekin. Alemaniatik Suediara eta handik Hego Amerikara iristea lortu zuten. Abenduan EEBBetara ailegatu ziren.		Bigarren Mundu Gerra hasi zen.
1942	Columbiako unibertsitatean irakasle. Latinoamerikan zehar jiran.		
1943	New York-era itzuli zen.	Franco jeneralaren diktadura.	
1945	NBERen konferentzian parte hartu zuen.		Bigarren Mundu Gerraren amaiera.
1946	Donibane Lohizunera bizitzera.		NBE sortu zen.
1947	Kristau-Demokraten Internazionalen esku hartu zuen Parisen.		

1948			NATO sortu zen.
1950	Eusko Jaurlaritzaren Parisko egoitza Espainiari entregatzea.	Estatu Batuek kredituak eman zizkieten Francori.	
1951		Lanuzte Orokorra.	
1952		UNESCOk Espainia onartu zuen.	
1954	NBEk Espainia onartu zuen. Nazioarteko egoeraren ondorioz, Francoren aurka egiteko itzaropena galdu zuen Agirrek.		
1956	I. Euskal Mundu-Biltzarra Parisen.		Varsoviako Ituna sortu zen Europako Merkatu Batua.
1960	Parisen hil eta Donibane Lohizunen ehortzi zuten.		

Berregina, Zuberogoitia 1997)



Ariketa:

13

J. A. Agirre Katalunian bizi izan zen garaiari buruz ETBk eta TV3-k elkarlanean egindako bideoa ikusi eta horri buruz eztabaidatzea. Gauza bera egingo da Jose Julian Bakedanoren "José Antonio Agirre. La lucha del pueblo vasco por la libertad" dokumentalarekin.

Neurtu J. A. Agirre eta bere garaia buruz dakizuna:

1. Nori eskatu zioten 1931.enean Lizarrako asanbladan onartu zen Autonomia Estatutuaren Proiektua idazteko?:

- a) Bizkaiko Foru Aldundiari.
- b) Euskaltzaindiari.
- c) Eusko Ikaskuntzari.
- d) Aranzadi Zientzia Elkarteari.

2. Agirre Lehendakaria Parisko erbestealdian hil zen:

- a) 1956. urtean.
- b) 1979. urtean.
- c) 1960. urtean.
- d) 1945. urtean.

3. Gipuzkoak Gorteetako EAJko diputatu _____ aukeratu zuen, eta Francisco Largo Caballero sozialistaren gobernuko sailik gabeko ministro izendatu zuten 1936ko irailean.

- a) Juan Ajuriaguerra.
- b) Manuel Irujo.
- c) Telesforo Monzón.
- d) Juan Astigarribia.

4. I. Euskal Mundu-Biltzarra Parisen izan zen:

- a) 1956. urtean.
- b) 1955. urtean.
- c) 1954. urtean.
- d) 1953. urtean.

5. Ordena itzazu kronologikoki ondorengo gertaera historikoak:

- 1 I. Euskal Mundu-Biltzarra.
- 2 Condor Legioak Gernika bonbardatu zuen.
- 3 J. A. Agirrek Eusko Jaurlaritzako Lehendakari karguaren zina egin zuen.
- 4 Agirre Lehendakaria erbestera Kataluniatik.

- a) 1,2,3,4
- b) 3,2,4,1
- c) 3,1,4,2
- d) 4,3,2,1

6. Ondoko erakundeetatik, zeinek dauka Euskal Herriko lurralde guztietara hedatuta eragin-eremua?

- a) Sociedad Vasco-Navarrak.
- b) Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak.
- c) Eusko Ikaskuntzak.
- d) Eusko Etxeak.

7. Ordena itzazu kronologikoki Eusko Jaurlaritzako lehendakarien izenak:

- a) Juan Jose Ibarretxe; Jose Antonio Agirre; Carlos Garaikoetxea eta Jose Antonio Ardanza.
- b) Jose Antonio Ardanza; Carlos Garaikoetxea; Juan Jose Ibarretxe eta Jose Antonio Agirre.
- c) Jose Antonio Agirre; Jose Antonio Ardanza; Carlos Garaikoetxea eta Juan Jose Ibarretxe.
- d) Jose Antonio Agirre; Carlos Garaikoetxea; Jose Antonio Ardanza eta Juan Jose Ibarretxe.

8. Zerk lotzen ditu ondorengo euskal politikariak: Heliodoro de La Torre, Telesforo Monzon, Juan Astigarribia eta Jesus Maria Leizaola.

- a) 1931.lean Lehenengo Errepublikako Gobernuko kide izateak.
- b) Agirre Lehendakariaren lehen Gobernuko kide izateak.
- c) Denak, gobernu ezberdinetan Ogasun sailburu izateak.
- d) EAJko kide izateak.

9. Euskadiko historiaren zein gertakizuni buruzkoa da Pablo Picasso-ren Guernica izeneko koadroa?

- a) Hiribildua sortu zeneko mendeurrenaren ospakizunari buruzkoa.
- b) Bigarren Mundu Gerraren hasierari buruzkoa.
- c) Hiribilduko Batzar Etxearen inaugurazioari buruzkoa.
- d) Espainiako Gerra Zibilean Condor Legioak koadroaren izen bera duen hiribilduan egindako bombardaketari buruzkoa.

10. Ondorengo politikarietatik zein izan zuen Agirre Lehendakariak militantzia politikoaren hasieretan oso hurbil?

- a) Manuel Irujo.
- b) Jesus Maria Leizaola.
- c) Juan Ajuriaguerra.
- d) Gonzalo Nardiz.

11. Chocolates Bilbainos ("CHOBIL") enpresan _____ entziklikako gizar-te-orientabideak gauzatu zituen:

- a) Leon XIII.aren *Rerum Novarum*.
- b) Juan XXIII.aren *Mater et Magistra*.
- c) Pio XI.aren *Quadragesimo Anno*.
- d) Juan Pablo II.aren *Laborem exercens*.



12. J. A. Agirre _____-(r)en diktadurako urteetan amaitu zituen goi-mailako ikasketak eta ekin zion bizitza profesionalari:

- a) Trujillo.
- b) Pinochet.
- c) Franco.
- d) Primo de Rivera.

13. 1931. urteko hauteskundeetan J. A. Agirre _____-ko alkate aukeratu zuten:

- a) Baracaldo.
- b) Portugalete.
- c) Bilbao.
- d) Getxo.

14. J. A. Agirrek _____ egunkarian artikuluak argitaratu zituen.

- a) "Euzkadi".
- b) "El Sol".
- c) "La Gaceta del Norte".
- d) "Hierro".

15. "Lizarrako Estatutua" (1931) izenpeko Euskal Herriko lehen Estatutuaren proiektua ondorengo probintzie-tako alkate gehienek onartu zuten:

- a) Araba-Gipuzkoa-Nafarroa-Bizkaia.
- b) Araba-Gipuzkoa-Nafarroa.
- c) Gipuzkoa-Nafarroa-Bizkaia.
- d) Araba-Gipuzkoa-Bizkaia.

16. Estatuko Gorteek bigarren Estatutu proiektua onartu zuten:

- a) 1933ko urrian.
- b) 1934ko uztailan.
- c) 1936ko urrian.
- d) 1936ko uztailan.

17. Estatutua onartu ondoren, J. A. Agirre Lehendakariaren gobernupeko lehenengo Eusko Jauriaritza eratu zen eta horretan alderdi gehienak zeuden ordezkaturak. Ondorengo alderdietatik zein geratu zen ordezkariarik gabe?

- a) Espainiako Langileen Alderdi Sozialista.
- b) Eusko Abertzale Ekintza.
- c) Alderdi Karlista.
- d) Batasun Errepublikarra.

18. Eusko Jaurlaritzak iraun zituen bederatzi hilabeteetan Euskadiko lurralde batean baino ez zituen funtzioak bete eskubide osoz (frankistek azkar menderatu baitzituzten gainerakoak). Zein da lurralde hori?

- a) Gipuzkoa.
- b) Araba.
- c) Nafarroa.
- d) Bizkaia.

19. 1937. urteko uztailean, frankisten aurrerakadaren ondorioz, J. A. Agirrek Euskaditik alde egin behar izan zuen. Gerra Zibilean zehar jarraitu zuen lehendakari-lanetan:

- a) Frantziatik.
- b) Belgikatik.
- c) Hego Amerikatik.
- d) Kataluniatik.

20. Gerra Zibilaren azken urteetan harreman estua izan zuen Estatu espainoleko politikari garrantzitsu batekin, hain zuzen ere:

- a) Indalecio Prieto-rekin.
- b) Lluís Companys-ekin.
- c) Manuel Azaña-rekin.
- d) Juan Negrín-ekin.

21. Zein herrialdetako kontsulak egin zion pasaporte faltsua GESTAPOari aztarna galarazteko?

- a) Britainia Handikoak.
- b) Panamakoak.
- c) Txilekoak.
- d) Estatu Batuetakoak.

22. Estatu batuetan jardun zen:

- a) Nazio-Batuetako funtzionario-lanetan.
- b) Columbia Unibertsitateko irakasle-lanetan.
- c) Euskal enpresen ordezkari-lanetan.
- d) Bankuko administrari-lanetan.

23. Hauetako zein liburu idatzi zuen J. A. Agirrek?

- a) "Fueros y Conciertos Económicos".
- b) "La Segunda Guerra Mundial y los vascos".
- c) "Entre la libertad y la revolución: 1930-1935".
- d) "Efemérides vascas".



24. Erbestealdian harreman estua izan zuen atzerriratuen euskal taldeekin (euskal diaspora), eta ugari zeuden:

- a) Amerikako Estatu Batuetan.
- b) Latinoamerikan.
- c) Filipinetan.
- d) Afrikan.

25. Euskal kulturaren zein ordezkariak parte hartu zuen I. Euskal Mundu Biltzarrean

- a) Aita Larramendik.
- b) Jose Maria Satrustegik.
- c) Axularrek.
- d) Jose Migel Barandiaranek.

Erantzunak:

1	a
2	c
3	b
4	a
5	b
6	c
7	d
8	b
9	d
10	b
11	a
12	d
13	d
14	a
15	a
16	c
17	c
18	d
19	d
20	b
21	b
22	b
23	c
24	b
25	d

LIBURUAK

- AGIRRE, J. A.: "Entre la Libertad y la Revolución 1930-1935. La verdad de un lustro en el País Vasco", Talleres Gráficos E. Verdes Achirica. Bilbo, 1935.
- AGIRRE, J. A.: "De Guernica a Nueva York pasando por Berlín", Ediciones FOCA. Madril, 2004.
- AMEZAGA, Elías: "Lehendakari Aguirre una vida al servicio de su pueblo", Eusko Jaurlaritzza, 1990.
- JIMÉNEZ, Edorta: "Investigación histórica sobre la vida de José Antonio Agirre y Lekube". Gipuzkoako Foru Aldundia, 2000.
- ZUBEROGOITIA, Aitor: "Jose Antonio Agirre". ELKAR Biografiak. Donostia, 1997.
- TAMAMES, Ramón: "La República. La era de Franco" Alianza Editorial, Madril, 1981.
- EIZAGUIRE, Domingo: "Corazón de cartón" Gráficas El Abra. Bilbo, 1999.
- AA.VV.: "Crónica de la Guerra Civil española" Plaza & Janés y Círculo de Lectores. Bartzelona, 1996.
- AA.VV. "Agirre" Bilboko Udala, 2004.

ARTIKULUAK

- DE LA GRANJA SAINZ: "Manuel Irujo, diputado a Cortes del PNV en la II República". Euskonews & Media. 2004.
- ANASAGASTI, Iñaki: "Futbolista y empresario social" Euskal Etxeak. 63. zk. 2004.
- CABALLERO BASAÑEZ, Carlos: "Sobre la figura de Francisco Javier de Landaburu" Euskonews & Media, 159. zk., 2002.
- "MUGA", Aldizkaria. 80.zk. 1992.
- "Euskal Etxeak", "Agirre lehendakariaren mendeurrena", 63. zk., 2004.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

- "De Gernika a Nueva York" Koldo San Sebastianek zuzendutako dokumentala. ETB eta Euskadiko Filmategia.
- AMIGO, Ángel: "Lauaxeta. A los cuatro vientos" Igeldo Zine Produkzioak. 1987 Euskadiko Filmategia.

INTERNET

- "José Antonio Agirre, un soñador para un pueblo" (Ingeleseko bertsioa).
<http://basque.unr.edu/09/9.3/9.3.48t/9.3.48.03.aguirre.htm>
- "Jose Antonio Agirre EAEko lehendakariaren ikuspegiak" (Juan José Ibarretxe eta Carlos Garaikoetxea) - Elkarrizketak.
http://www.berria.info/testuak/agirre/agirre_8.php
- "Una vida intensa".
http://www.euskadi.net/rev_e_etxeak/datos/63_04_05_c.pdf
- Agirre Lekube, Jose Antonio - Entziklopediako artikuluak.
<http://www.puntubi.com/laburrak/agirrelekubejoseantonio.htm>
- "Mitotik haratago" - Bibliografia laburra.
http://www.berria.info/testuak/agirre/agirre_2.php
- "E.K.A.ren lehendakaria" - Euskal Mundu Biltzarrari buruzko informazioa/kronika (Paris, 1956ko iraila).
<http://suse00.su.ehu.es/liburutegia/liburuak/zaitegi/131135.pdf>

Oharrak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN